

## MAILEGUAK LEXIKOAN

Ingelesez mintzo diren hiztunek adarra jotzen diote frantsesei, Frantziako gobernuak daraman politika linguistiko puristarengatik, batez ere ingelesetik datorren berba arrotz multzoaren aurrean.

Geurera etorrita ere, agian, garbizalekeria linguistikoa oso hedatua dago eta ez hizkuntzalariengan edo itzultzaileengan soilik, ezen herritarren aldekotasuna, babesa ere baitu. Izan ere, lexikoa da hizkuntzaren alderdirik agerikoena. Badira urteak “Zuek mugatu *paseu* esaten dozue” aurpegiratu zidala Taket bertsolariak

### Tipologia

Kasurik errazenean, berba bat oso-osoan mailegatzen da, prestatzen da –hotsa eta esanahia-, hor ez da zeresan askorik. Baina beste posibilitate ugari ere gertatzen dira.

Tipologiarik landuena Haugen-ek (1950) moldatu zuen, oinarrizko bereizketa inportazioaren eta ordezkatzearen artekoa eginik.

Inportazioa eredu bat hizkuntzara gehitzeari deritzo berak

Ordezkatzea, aldiz, beste berbetako zerbait ordezkatzeari deritzo. Esate baterako, euskaldunak dioenean e-mail, ingelesetik euskarara inportatu du e-mail morfema, baina

morfema horren barruan ordezkatu egin du euskarako e fonema -hotsa- ingeleseko -i-rekin eta a ingelesekoa -ei- rekin.

Honenbestez, Haugen-ek halako mailegu tipoak eskaintzen dizkigu:

1.- Maileguak (loanwords). Berbaren inportazioa, baina ordezkatzeko barik. Adibidea, chic ingelesekoa: "Arropa horregaz oso chic ematen duzu"

2.- LOAN BLENDS, inportazioaz gainera ordezkatzeko. Hor sartuko lirateke hibridoak ere: Tomatxa izan duk, txo!

3.- LOAN SHIFTS, kalkoak, inportazio bako ordezkatzeko morfikoa. Adibidea: raskazielosa, ingeleseko sky-scraper-etik edo "Aste santuko zubia" gazteleratik, ingelesez asteburu luzea edo esango genukeena adierazteko.

Ikuspegi antropologikotik, beste banakata bat egin da, Albó (1970), hiztegiaren ordezkatzeko eta gehitzea bereizten ditu. Ordezkatzeko gertatzen da, meilegatutako terminoa kulturen jandak baden kontzeptu baterako erabiltzen denean eta gehiketa kontzeptu berria bada.

Behin hona ezkerre, bada esanahi handiko bereizketa bat:

- hiztegi nuklearreko mailegua eta
- hiztegi periferikoko mailegua

Hiztegi nuklearra deritzegu gizateriarentzako elementu basikoak: sua, eskuak, bi, alaba eta abar.

Periferikoa, cortacésped berria, diktionarioa eta abar, hau da, kultura eta erakuntza material eta ez materialekoak. Talde baten espezifikokoak direnak.

Edozein mailegu tipologiarako, oinarritzeko arazoa da jakitea, zelan bereiztu behin- behinekorako hartu diren beste berbetako hitzak -orduan interferentzia lexikoz eta noiz behinkako maileguez mintzatuko ginateke- eta gainerakoak, erabat integratuta geratzen direnak.

## Determinante sozialak eta kulturalak

*Zergatik mailegutzen dira berbak? Zeintzuk dira mailegatzearen determinante sozialak eta kulturalak?*

*Weinreich-ek zenbait arrazoi ematen ditu berbak mailegatzeari posible izan dadin:*

1.- *Eragin kulturalagatik*

2.- *Badirelako jatorrizko berba arraroak galdu egiten direnak eta atzerriko bitzez ordezkatu.*

3.- *Badirelako jatorrizko berba bi, baina antzeko doinua dutenak non euretari bat atzerriko batekin ordezkaturik anbigutasun posibleak konpontzen dituen.*

4.- *Etengabeko premia dagoelako afektibitate berben sinonimoena, jadanik indarra galdu dutenena*

5.- *Maileguen bitartez bereizketa semantiko berriak ezar daitezkeelako.*

6.- *Har daitekeelako behe estatusko berba bat eta peioratiboki erabili.*

7.- *Berba bat era ia oharkabean sar daitekeelako elebitasun intentsoaren kausaz*


*1, 2, 3 eta 5 arrazoiek funtzio erreferentzialari dagozkio eta 4 eta 6 arrazoiek funtzio adierazkor eta direktiboari.*

## Maileguak euskarari

*Tanatorioa/Beila-Etxea*

René Appel eta Pieter Muysken-ek (1996) dioskute, "Nolabait esateko, ingeleseko lexikoak zati desberdin bi ditu: natiboa eta kultura". Baina baieztapen hori –Mendebaldera mugaturik- gaurko zibilizazioko hizkuntza guztien kontua da. Piramidea irudikatzen badugu, Federiko Krutwig-ek irakatsi ohi zigunez, etniako lexikoa behean kokatzen da eta grekoare-

na -latinarena baino areago- erpinean, gailurtean. Piramidearen goiko aldean kentzen badugu, nekazaritzara eta arrantzara itzultzen gara.



Horrexegatik da desegokia, nire ustez, tanatorioren euskal ordezkotzat beila-etxe jartzea, tanatorio euskara da-eta. Joera hau oso hedaturik dabil itzultzaileen artean zein testu liburuetan, ezen grekoko herbak espainolak balira legez jokatzeko baita. Inoiz hartzen badira, gainera, espainoetik jasotzen dira, berez, adarra den espainoetik baino grekoko sustraitik hartu behar direnean.

Tanatos baztertzen badugu, Eros erwV -bizitzaren printzipioa- eta Tanatos qanatoV-heriotzaren printzipioa- zelan esan behar ditugu? Beila hitza baztertu egin behar da? Jakina ezetz! Baina tanatorio zer den euskaldun guztiek dakite Bilbon eta euskara da, diafano den legez edo beste ehunka asko. Akulturazioan jarraitzen badugu, tanatorio berba traba-hitza da, kulturaz jantzirik, oster, geure dela ohartzen gara, alemanena edo frantsesena den bestean.

Federiko Krutwigen esanetan, oin birekin gabiltza, bata etnikoa eta bestea grekoak dakarkiguna.

Bestalde, berba zaharrak ez ditugu identifikatzen arrotz izaerarekin, gaian espezialistak izan ezik. "Lagunak borkel iminita beti tabernan". (Maria Arrietak). "Gucien gainetik fedezco broquela harturic" (Leizarraga)

Dobleteak -euskara modernizatzeko sortuak- neurri txikerrean finkatu dira herritarren artean. Oporrak da salbuespenetarikoa. Batzuetan, gainera, ikasia oker sartu da, jolastu, kasurako.

“Futbolean jolastuten joan da”, betiko euskaldunak regresioz esana. Horrela, itzulpena baino traduziñoa entzungo dugu edo hegazkina baino abioia. Geu ere sarritan beldur gara solaskidea uxa ez dadin ikasia jendarteratzen lagun arteko giroetan. Erdaldunik bada inguruan, ordea, agur prestigioa “Has dicho purifikatu”, ezen elebakarren burua ulertu egin behar baita. Kontatu ohi zuen Federiko Krutwigek, bazirela behin italiarra, frantsesa, euskalduna eta espainola. Elkarrizketaren amaieran arrazoitu zuela espainolak: “Los franceses al agua llamáis: *eau*; vosotros los italianos; *acqua*; los vascos: *ura*, pero el *agua* es *agua*”.

Hizkuntza bateko herbak elementu independenteak dira, baina, beste alde batetik begiratuta, sistema beteko parte ere badira.

Kategoria batzuk beste batzuk baino errazago mailegutzen dira. Adituen artean bat datoz baieztatzean, substantiboak errazago mailegutzen direla. Horren frogarako, dena dela, ez da metodo enpiriko egokitzat jotzen hiztegiko elementuen kontaketa.

Ikuspegi orokorrago batetik, berba “gramatikalak” -adjektiboak, substantiboak, aditzak errazago mailegutzen dira elementu funtzionalak baino, hots, artikulua, izenordeak, juntagaiak- ezen lehenek lotura argia baitute eduki kulturalarekin, ez, ordea, bigarrenak. Gehienetan, koherentzia paradigmaticoarengatik, determinanteak, izenordeak, erakusleak eta beste berba batzuk era paradigmaticoan antolatuak ez dira mailegutzen.

### **Mailegu lexikoak eta desagertze linguistikoa**

Batzuetan uholdekako mailegutza gertatzen da jasotzen duen hizkuntzarako eragin larriegirik ekarri gabe. Beste kasu batzuetan, mailegutza ahultze prozesuko zeinu nabarmena gertatu ohi da.

### **Ikasleak lexikoaren aurrean**

Irakaskuntzan hiztegia dela eta ikerketa asko egin badira ere, emaitzetan desadostasun handiak dirau. Daniel Cassany-k

bere “Describir el escribir” katalanetik itzulian ikerketa desberdinak aurkezten ditu eta baieztapen modura dio gela bitan, batean irakurri baino egiten ez zena eta bestea behin eta berriz zuzendu, emaitzak hobekak zirela irakurketakoan. Ni neu esperientzia horixe aurrera eramaten ari naiz eta ez dirudi irakurketa soilak hiztegiko jabetza dakarrenik, ez bada irakurketa idazle espirituz, imitatze espirituz egiten. Ezen ikasleek berba bat ulertzen ez dutenean, nekez jotzen dute hiztegia, eta nekezagoko kontsultatuta zehatz-mehatz apuntatu. Gehienetan testuingurutik antzematen dute, ondorioz soslai iluneko esanguraz edo okerraz gelditurik. Gehiegitan, gainera, erdarako adieraziaz gelditzen dira: *aitak, beste egunean*; baita euskaldun profesionalak ere: *ekidin, ataza* –tarea esateko eta abar.

Nire gomendioa, aldiz, hiztegia kontsultatzeari ekitea da, harik eta norbera seguru-seguru egon arte. Ez dugu ahaztu behar ondo finkatu bako ehunka hitzez ikasten dihardutela neska-mutil askok. Norberak *alper-harria* azaldu eta 30 ikasletarik 5ek *alpe harria* idatzita. Edo azkenetariko esperimenduetan behin bideoa ipiniz galdetu zein izen entzuten duten eta sei aldiz entzun arren koaderno eskatu eta Zatrustegui, Satustegi; Jose Barandiaran, Miel Barandiara, Jose Mighuel Baranda...

Oinarrizko hiztegia ondo-ondo finkatzea erabat garrantzitsua da, areago elebitasun giroan, diglosia giroan, berbeta bi edo hiru ukipenean bizi dituen ikaslearen kasuan. Zelan ulertuko dute, bestela, *Urazurrutia* deiturako edari banatzaileari *Ardozurrutia* –ardo zurrutean gainkarga ibiltzen baitzen- deitzea, edo *Ke asko* –tximiniakoa, -ez qué asco- edo *Vivir de gorra* –entzuten ez duena- edo errepikatzeko esan eta *txinako* askotan esanik zer sortzen den. Hizkuntzak funtzio asko ditu eta nagusiki erregistro bi dira, familiarra eta ez familiarra, euskaldun oso izateko biak beharrezko.

*Juan Luis Goikoetxea Arrieta*  
2003-01-27